

ZIENTZIAREN ERTZETIK

Hitzaldi-solasaldia Eneko Tejada irakaslearekin

Nerabeen eta mugikorraren arteko harremana

Durango, 2025eko abenduaren 5an. Azken urteotan, nerabezaroaren hasiera lehen telefono mugikor adimenduna izatearekin lotu da. Une horrek errealitatearen mundu paralelo baten antzera funtzionatzen duen ingurune digitalari atea irekitzen dio. Euskadin, 11 eta 12 urte bitarteko hiru nerabetik bik dute horrelako gailu bat, Euskal Herriko Unibertsitateko Weblearner ikerketa taldeak egindako [lan](#) baten arabera.

Mugikorrekin, tabletekin edota ordenagailuekin duten harremana teknologiatik haratago doa, eta dimentsio hirukoitza barnebiltzen du: emozionala, soziala eta identitarioa, eta erabiltzen hasten direnengan eragin zuzena du.

Kontu honi buruz hausnarketa egiteko, **Eneko Tejada** EHUko Weablearner taldeko ikertzaileak eta hezkuntza eta teknologian espezializatutako irakasleak "Nerabeen eta mugikorraren arteko harremana" izenburupeko hitzaldia eskainiko du. Hezkuntzatik eta zientziatik begiratuta aztertuko du Tejadak gailu mugikor hauen erabilerak duen eragina nerabeen ongizate emozionalean, euren buruaren irudikapenean eta gizarte-harremanen eraketan.

Honekin batera, ikastetxean zein etxean familiek, tutoreek eta irakasleek gailu mugikorren erabilera arduratsu, kritiko eta osasungarrian duten rola aztertuko du.

Hitzaldia euskaraz izango da eta **Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan egingo da abenduaren 12an, ostirala, 18:30ean**. Hitzaldi hau [EHUko Kultura Zientifikoko Katedra](#)k eta [Durangoko Biblioteka](#)k antolatzen duten *Zientziaren Ertzetik* dibulgazio zikloaren parte da. Beti bezala, sarrera doan izango da, edukiera

bete arte. EITBren [Orain](#) kanalean ere jarraitu ahal izango da zuzenean, *streaming* bidez.

Hizlaria

[Eneko Tejada Garitano](#) Psikodidaktikan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean eta Psikopedagogian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. EHUko Didaktika eta Eskola Antolakuntza saileko irakaslea da Hezkuntza Fakultatean, eta baita Teknologia, Ikaskuntza eta Hezkuntza Masterrean ere. Gainera, eCampus unibertsitateko kanpus birtuala zuzentzen du eta [Weblearner](#) ikerketa-taldearen kide da. Bere ikerketa-eremuak teknopedagogiarekin, hezkuntza-berrikuntzarekin, eta ziberbizikidetzarekin du zerikusia.

Hitzaldi-solasaldia

- **Hitzaldia:** "Nerabeen eta mugikorraren arteko harremana"
- **Hizlaria:** Eneko Tejada, EHUko irakaslea eta ikertzailea.
- **Hizkuntza:** euskara.
- **Data:** abenduaren 12a, ostirala, 18:30ean.
- **Lekua:** Bizenta Mogel Biblioteka (Komentukalea, 8, Durango).
- **Streaming:** bai. [Orain](#) (EiTB)

ZIENTZIAREN ERTZETIK

Charla-coloquio con el profesor Eneko Tejada

Nerabeen eta mugikorraren arteko harremana (La relación entre adolescentes y móviles)

Durango, 5 de diciembre de 2025. En los últimos años el inicio de la adolescencia se ha vinculado con el acceso al primer teléfono inteligente. Este momento abre la puerta de entrada a un entorno digital que funciona como un mundo paralelo a la realidad. En Euskadi, dos de cada tres adolescentes de entre 11 y 12 años disponen de un dispositivo de este tipo, según un [estudio](#) realizado por el grupo de investigación Weblearner de la Universidad del País Vasco.

La relación que mantienen con móviles, tablets u ordenadores va más allá de lo tecnológico, y abarca una triple dimensión emocional, social e identitaria, con un impacto directo en quienes empiezan a utilizarlos.

Para reflexionar sobre esta cuestión, **Eneko Tejada**, profesor especializado en educación y tecnología e investigador del grupo Weblearner de la EHU, ofrecerá la charla "Nerabeen eta mugikorraren arteko harremana (La relación entre adolescentes y móviles)". Durante su intervención, examinará, desde una mirada científica y educativa, la influencia del uso de dispositivos móviles en el bienestar emocional, la autorrepresentación y la construcción de relaciones sociales en la adolescencia.

Además, también pondrá sobre la mesa el papel que juegan familias, tutores y docentes en la promoción de un uso responsable, crítico y saludable de los dispositivos móviles tanto en la escuela como en el hogar.

La conferencia, que se impartirá en euskera, tendrá lugar el **viernes 12 de diciembre a las 18:30 horas en Bizenta Mogel Biblioteka de Durango**, dentro del ciclo divulgativo *Zientziaren Ertzetik*, organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la [Biblioteca de Durango](#). La entrada es libre hasta completar el aforo y podrá seguirse en *streaming* a través del canal [Orain](#) de EITB.

El conferenciante

[Eneko Tejada Garitano](#) es doctor en Psicodidáctica por la Universidad del País Vasco y licenciado en Psicopedagogía por la Universidad de Deusto. Es profesor en el departamento de Didáctica y Organización Escolar en la Facultad de Educación, así como en el Máster Universitario Aprendizaje, Tecnología y Educación de la EHU. Además, dirige eCampus, el campus virtual de la universidad, y forma parte del grupo de investigación [Weblearner](#). Su ámbito de investigación se centra en la tecnopedagogía, la innovación educativa y la ciberconvivencia.

Charla-coloquio

- **Conferencia:** "Nerabeen eta mugikorraren arteko harremana (La relación entre adolescentes y móviles)"
- **Conferenciante:** Eneko Tejada, profesor e investigador de la EHU.
- **Idioma:** euskera.
- **Fecha:** viernes, 12 de diciembre de 2025, 18:30 horas.
- **Lugar:** Bizenta Mogel Biblioteka (Komentukalea, 8, Durango)
- **Streaming:** sí. [Orain](#) (EITB)